

# udako aisialdi eskaintza 2024

zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA



Aurten ere indartsu dator **Zirimolako lantaldea**. Urte osoko lanak eman du bere uzta. Hala, Euskal Herriko haurrak saretu eta **aisialdi hezitzaile eta euskaldunaz** blaitzeko asmoz garatutako udaleku eskaintza da eskuartean duzuna.

Aurten ere, **programazioak berritu dira**, aurreko ikasturtean ikasitakotik, urtero bezala, programei **berrikuntza pedagogiko** esanguratsuak txertatuta: interesgune berriak eta hezitzaileen formakuntza espezifiko eguneratuak, besteak beste. Horrez gain, familien eskaerak aintzat hartu ditugu eta aurten 10 eguneko txandak eskainiko ditugu.

ZIRIMOLAk antolatzen dituen udalekuak Euskal Herri osoan zabaltzen dira, eta, haurrak erdigunean direla, honako balio hezitzaile hauek sustatzen dituzte: **parte-hartzaileak dira, naturaz gozatzeko eta ikasteko jarduera-multzoez osatuak daude, ikuspegi inklusiboa eta herritarra dute, eta, ororen gainetik, euskaldunak dira.**

Zirimolan gure udalekuak euskaratik eta euskaraz Euskal Herriko haur eta gazteen topagune izatea nahi dugu. Horretarako, egonaldi-eskaintza zabala dugu, norberaren berezitasunetatik abiatuta, haur eta gaztetxoek aukera izan dezaten euren gustuen araberako hautaketa egiteko, eta, jolasetik (ludikotasunetik) abiatuta, une gozagarriak bizitzeko.

**Haur eta gazteek merezi dutelako, udan ikusiko dugu elkar!**

## IKASTOLAN BERTAN

| | **1.txanda** Ekainak 24-28 | **2.txanda** Uztailak 1-5 | **3.txanda** Uztailak 8-12 | **4.txanda** Uztailak 15-19 |
|---|---|---|---|---|
| **eman** hegoak | 2014-2020 (HH3-LH4) | 2014-2020 (HH3-LH4) | 2014-2020 (HH3-LH4) | 2014-2020 (HH3-LH4) |
| **enjoy** english | 2014-2018 (HH5-LH4) | 2014-2018 (HH5-LH4) | 2014-2018 (HH5-LH4) | 2014-2018 (HH5-LH4) |

## UDALEKU ITXIAK

| **EUSKARAZ** | **1.txanda** Ekainak 23 - 29 | **2.txanda** Ekainak 30 - Uztailak 6 | **3.txanda** Uztailak 7 - 13 | **4.txanda** Uztailak 14 - 20 |
|---|---|---|---|---|
| **euskara** mugara | 2013-2015 (LH3-5) | 2013-2015 (LH3-5) | 2013-2015 (LH3-5) | 2013-2015 (LH3-5) |
| **natura** arnas | 2012-2014 (LH4-6) | 2012-2014 (LH4-6) | | |
| **gazte** topaketak | | | 2008-2009 (DBH 3-4) Uztailak 7-16 10 egun! (10 eguneko txanda) | |
| **uretan** blai (Lekeitio) | 2011-2012 (LH6-DBH1) | 2010-2011 (DBH1-2) | 2012-2013 (LH5-6) | 2010-2011 (DBH 1-2) |
| **uretan** blai (Zurriola) | | 2012-2014 (LH4-6) | 2010-2011 (DBH1-2) | 2012-2014 (LH4-6) Uztailak 14-23 10 egun! (10 eguneko txanda) |

| **INGELESEZ** | | **1.txanda** Ekainak 30 - Uztailak 6 | **2.txanda** Uztailak 7 - 13 | **3.txanda** Uztailak 14 - 20 |
|---|---|---|---|---|
| **multiadventure** camps (Bermeo) | | 2012-2013 (LH5-6) | 2010-2011 (DBH1-2) | 2012-2013 (LH5-6) |
| **multiadventure** camps (Zarautz) | | 2010-2011 (DBH 1-2) | 2012-2013 (LH5-6) | 2010-2011 (DBH 1-2) Uztailak 14-23 10 egun! (10 eguneko txanda) |

# **eman** hegoak




**Ekainean eta uztailean** zehar **ikastolan bertan** egiten diren **goizeko udalekuak** dira eta **HH eta LHko ikasleei zuzenduta** daude. Programazioa adin-tarte bakoitzari egokitzen zaio, eta aisialdi euskalduna, inklusiboa eta hezitzailea eskaintzeko helburuz, aste bakoitzeko interesgune jakin bat duen jarduera-multzoa garatzen da.

**NOIZ**
Ekainaren 24tik uztailaren 19ra
4 txandatan, goizez.

**NORENTZAT**
2014-2020 artean jaiotakoentzat (3-10).

**NON**
Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

**PREZIOA ETA IZEN EMATEA**
Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko galdetu zure ikastolan.

| | **1.txanda**<br>Ekainak 24-28 | **2.txanda**<br>Uztailak 1-5 | **3.txanda**<br>Uztailak 8-12 | **4.txanda**<br>Uztailak 15-19 |
|---|---|---|---|---|
| **eman** hegoak | 2014-2020 (HH3-LH4) | 2014-2020 (HH3-LH4) | 2014-2020 (HH3-LH4) | 2014-2020 (HH3-LH4) |

# **enjoy** english



**Ekainean eta uztailean** haurrak taldean eta modu ludikoan **ingelesez aritzeko ikastolan bertan egiten diren goizeko udalekuak dira.** Aurten ere Ikastolen Elkarteak udaleku honetarako beren-beregi sortutako ikasmateriala erabiliko da, jasotako balorazioekin eta hobekuntza-proposamenekin moldatua. Udalekuak aurrera eramateko ardura izango duten **hezitzaileak ingeles hiztunak dira. Ikastolek nahi izanez gero, gainera, hezitzaile horiek jatorriz ingeles hiztunak izan daitezke.**

**NOIZ**
Ekainaren 24tik uztailaren 19ra.
4 txandatan, goizez.

**NORENTZAT**
2014-2018 artean jaiotakoentzat (5-10)

**NON**
Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

**PREZIOA ETA IZEN EMATEA**
Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko galdetu zure ikastolan.

| | **1.txanda** Ekainak 24-28 | **2.txanda** Uztailak 1-5 | **3.txanda** Uztailak 8-12 | **4.txanda** Uztailak 15-19 |
|---|---|---|---|---|
| **enjoy** english | 2014-2018 (HH5-LH4) | 2014-2018 (HH5-LH4) | 2014-2018 (HH5-LH4) | 2014-2018 (HH5-LH4) |

# **natura** arnas (Allo)

## Joko, jolas eta plast!



Lizarraldea **euskal jolas eta jokoen bitartez** ezagutzeko aukera paregabea. Allok eta haren inguruak ematen dizkigun baliabide naturalak uztartuz, uda-giroan astebeteko egonaldiak egingo ditugu. **Mendi-irteerak, euskal pilota, herri-kirolak, igerilekua, tailerrak, gaubelak...** aspertzeko denborarik ez!

**NOIZ**
1.txanda: ekainaren 23tik ekainaren 29ra.
2.txanda: ekainaren 30etik uztailaren 6ra.

**NORENTZAT**
2012-2014 artean jaiotakoentzat (9-12)

**NON:** Alloko La Tahona etxean.

**PREZIOA**
290€

| | **1.txanda**<br>Ekainak 23 - 29 | **2.txanda**<br>Ekainak 30 - Uztailak 6 | | |
|---|---|---|---|---|
| **natura** arnas | 2012-2014 (LH4-6) | 2012-2014 (LH4-6) | | |

# **gazte** topaketak
(Allo)




Euskal Herriko lurralde ezberdinetako **gazteen topagunea** izango da La Tahona aterpetxea. **Gazteen interesak, motibazioak eta beharrizanak aintzat hartuz,** askotariko ekintzez eta dinamikez osatutako aste ludikoa izango da bertan egingo duguna. Gazteek, jolasak ematen duen gozamenerako aukera baliatuz, berdinen arteko harremanetan sakontzeko  aukera paregabea izango dute.

**NOIZ**
Uztailaren 7tik 16ra. *10 eguneko txanda.

10 eguneko txanda

**NORENTZAT**
2008-2009 artean jaiotakoentzat (14-16).

**NON**
Alloko La Tahona etxean.

**PREZIOA**
340€

# **uretan** blai
## (Zurriola eta Lekeitio)



Aurten **Zurriolan eta Lekeition** biziko dute ikasleek urak eta itsasoak kostaldean, pertsonengan, komunikazioan eta kulturan izan duten eragina. Modu horretan, naturaz gozatzeko aukera izango dute, itsas mundua ezagutuz eta sentituz, itsasoan eta Donostiako eta Lekeitioko inguru ederretan egingo diren jolasen, jokoen eta jarduera ludikoen bidez.

**NOIZ**
1.txanda: ekainaren 23tik 29ra (Lekeitio).
2.txanda: ekainaren 30etik uztailaren 6ra (Lekeitio eta Zurriola)
3.txanda: uztailaren 7tik 13ra (Lekeitio eta Zurriola).
4.txanda: uztailaren 14tik 20ra (Lekeitio).
uztailaren 14tik 23ra (Zurriola) *10 egun (10 eguneko txanda)

**NORENTZAT:** 2010-2014 artean jaiotakoentzat (9-14)

**NON:** Donostiako Zurriola Ikastolan eta
Lekeitioko Azkue Ikastolan.

**PREZIOA**
7 eguneko prezioa:
338€

10 eguneko prezioa:
450€

| | **1.txanda** Ekainak 23 - 29 | **2.txanda** Ekainak 30 - Uztailak 6 | **3.txanda** Uztailak 7 - 13 | **4.txanda** Uztailak 14 - 20 |
|---|---|---|---|---|
| **uretan** blai (Lekeitio) | 2011-2012 (LH6-DBH1) | 2010-2011 (DBH1-2) | 2012-2013 (LH5-6) | 2010-2011 (DBH 1-2) |
| **uretan** blai (Zurriola) | | 2012-2014 (LH4-6) | 2010-2011 (DBH1-2) | 2012-2014 (LH4-6) Uztailak 14-23 10 egun! (10 eguneko txanda) |

# **euskara** mugara

(Lapuebla de Labarka)




Euskara mugaraino eramango dugu, aisialdi hezitzaileaz gozatuz, Arabar Errioxako ertzak ezagutuz eta bertako baliabide kultural eta naturalak dastatuz. Astebetez, **Lapuebla de Labarkako Assa ikastolan** ekintza ludikoz beteriko elkarbizitza-gunea sortuko dugu. **Mahastietan, upategietan eta Ebron ere euskaraz bizi gara!**

**NOIZ**

1.txanda: ekainaren 23tik 29ra.
2.txanda: ekainaren 30etik uztailaren 6ra.
3.txanda: uztailaren 7tik 13ra.
4.txanda: uztailaren 14tik 20ra.

**NORENTZAT:** 2013-2015 artean jaiotakoentzat (8-11).

**NON:** Assa Ikastolan (Lapuebla de Labarka).

**PREZIOA**
255€

| | **1.txanda** Ekainak 23 - 29 | **2.txanda** Ekainak 30 - Uztailak 6 | **3.txanda** Uztailak 7 - 13 | **4.txanda** Uztailak 14 - 20 |
|---|---|---|---|---|
| **euskara** mugara | 2013-2015 (LH3-5) | 2013-2015 (LH3-5) | 2013-2015 (LH3-5) | 2013-2015 (LH3-5) |

# **multiadventure** camps

## (Bermeo eta Zarautz)



Euskal kostaldean **ingelesez egingo diren multiabentura udaleku itxiak** dira hauek. **Zarautzen eta Bermeon** gazteek ingelesa lantzeko aukera izango dute ekintza-programa zabal baten bidez: kirol- eta ur-ekintzak, txangoak eta abar. Hezitzaileak **Euskal Herriko ingeles hiztunak eta jatorriz ingeles hiztunak izango dira.** Enjoy the adventure with us!

**NOIZ**
1.txanda: ekainaren 30etik uztailaren 6ra (Bermeo eta Zarautz).
2.txanda: uztailaren 7tik 13ra (Bermeo eta Zarautz).
3.txanda: uztailaren 14tik 20ra (Bermeo).
uztailaren 14tik 23ra (Zarautz). *10 egun

10 eguneko txanda

**NORENTZAT**
2010-2013 artean jaiotakoentzat (10-14).

**NON:** Zarauzko Salbatore Mitxelena Ikastolan eta Bermeoko Eleizalde ikastolan.

**PREZIOA**
7 eguneko prezioa: 331€

10 eguneko prezioa: 450€

| **INGELESEZ** | | **1.txanda** Ekainak 30 - Uztailak 6 | **2.txanda** Uztailak 7 - 13 | **3.txanda** Uztailak 14 - 20 |
|---|---|---|---|---|
| **multiadventure** camps (Bermeo) | | 2012-2013 (LH5-6) | 2010-2011 (DBH1-2) | 2012-2013 (LH5-6) |
| **multiadventure** camps (Zarautz) | | 2010-2011 (DBH 1-2) | 2012-2013 (LH5-6) | 2010-2011 (DBH 1-2) Uztailak 14-23 10 egun! |

10 eguneko txanda

**INFORMAZIOA**
www.zirimola.eus atarian
ZURE IKASTOLAKO IDAZKARITZAN

**NOLA MATRIKULATU**
www.zirimola.eus atarian
NORBERE IKASTOLAN
(Eman Hegoak eta Enjoy English)

**ARRETA ORDUAK**
Astelehena-osteguna
9:00-14:00/15:00-17:00
Ostirala
9:00-15:00
Tlf.: (0034) 943 369637/ 943 445108

**IZEN EMATEA**
Martxoaren 4tik maiatzaren 14ra

**www.zirimola.eus**

ikastolenelkartea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA